



Berezko legea, enplegu publikoaren eredu berria eraikitzeko

Berriki ezagutu dugu Eusko Jaurlaritzak plazaratu duen zirriborroa Euskal Autonomia Erkidegoaren Funtzio Publikoa arautzeko . LAB sindikatutik salatu dugun bezala, estatu mailan aplikatzen ari den arauen garapena besterik ez da, bertako errealitateari eta beharriari erantzuten ez dieten irizpide batzuk aplikatu nahian. Horren aurrean, Euskal Herrian funtzio publikoa arautzeko eredu propioa behar dugula galdegin dugu, irmotasunez. Hemen daukazu bi proiektuen arteko alderaketa labur bat: Eusko Jaurlaritzaren zirriborroaren nolakotasunak ezkerreko zutabearen datoz, LAB sindikatuak Euskal Herrirako guztiz beharrezkotzat jotzen dituen ezaugarriak, aldiz, eskumakoan:

Administrazioak inposatu nahi duen eredu:



- x Espainiar estatuko sistemaren araberako eredu
- x Administrazioari kudeaketa eta antolakuntzarako erabateko boterea ematen diona
- x Elite batek erabakitako zerbitzu publikoen eredu
- x Zerbitzu publikoetan irizpide merkantilistak ezarriko dituen
- x Elkarlana baino, individualizazioa eta lehiakeriaren sustatzailea

EHko enplegu publikorako LABen eredu



- ✓ Euskal herriko errealitatean eraikitako eredu
- ✓ Administrazioari inposiziorako ahala kenduko diona
- ✓ Zerbitzu publikoen izaera komunitarioa indartuz benetako parte hartzeari atea irekiko dizkiona
- ✓ Zerbitzu publikoen kalitatea sendotzeko eredu
- ✓ Lan-baldintzak negoziazio kolektiboaren bidez arautuko dituena



Administrazioak lan-baldintzak (lan osasuna eta prebentzioa, prestakuntza, baimenak eta lizentziak...) inposatzeko ahalmena, azken urte hauetan ezaguna zaigun eran

Soldata, jardunaldia, lizentziak... espainiar estatuak erabakiko ditu.

Negoiazio kolektiboa bultzatu beharrean, lan baldintzen hobekuntza indibidualizatu eta arduradun politikoei menpekotasuna sustatu egiten du. Langileen artean elkarlana sustatu baino, gure arteko lehiakeria lehenesten du (lan-jardunaren ebaluazioa/lanbide karrera)

Ustezko profesionaltasunaren izenean adiskidekeria, ilunkeria eta emakumezkoak goi postuetan aritzeko oztopo berriak sortzen ditu (Zuzendaritza-kide Profesionalen figura)

Pribatizazioei eutsi, eta langileen zein zerbitzu publikoetako titular diren herritarren parte hartzeari aukerarik eman ez

Langile arteko bereizkeria (kontratutako enpresetakoak eta administrazioko langileak, aldi baterako langileei langile finkoei aitortutako eskubide asko kendu, zuzendaritza-kide diren langileen baldintzetako ilunkeria, ordainsarien aldeak handitu...)

Zerbitzu publikoetan langileak euskalduntzeko aurrerapausorik ez, hizkuntz eskakizunen sistema antzua erreproduzitu

Sindikatuon parte hartzea iritzi hutsetara mugatu (negoiazio kolektiborik ez, hautaketa organoetatik kanpo utzi,)

Lan-baldintzak negoziazioaren eta akordioaren ondorio izatea.

Lan-baldintza guztiak euskal esparruan erabakitzea.

Langileen parte-hartzeari eta kritikotasun konstruktiboari ateak irekitzea.

Langileen arteko elkarlana eta talde lana sustatzea.

Langileen motibazioa, parte-hartzea eta kritikotasuna bultzatu, erabakitzeko eskubidearen bidez.

Enplegu publikorako sarbidean zein lan-baldintzetan aukera berdintasuna eta gardentasuna bermatzea.

Zerbitzu publikoak interes pribatuko enpresa merkantilen esku uzteko debekua, eta langileen zein herritarren parte hartzea suspertzea. kontratatutako enpresetako langileen lan baldintzak behar den moduan arautzea, errebertsiorako prozesuak gauzatu bitartean.

Langile guztiek, eskubide eta betebeharrak berdinak: izan funtzionario, estatutario edo lan-kontratukoak, izan finkoak edo aldi-baterakoak, administrazioko langileak izan edo kontratatutako enpresetakoak.

Zerbitzu publikoen funtzionamendua euskalduntzeko plan neurgarri eta eraginkorra

Sindikatuon parte hartzea indartu, negoziatio kolektiboa bultzatuz, eta zerbitzu publikoen aurrekontu publikoen eztabaidan ere parte hartzeko aukera emanaz, erabakitzeko ahalmenaz.

